

Aukeratu proposatzen diren bi gai hauetatik **bat**:

1. gaia: Ikasteko leku eske

Egoera:

Azterketa-garaia gertu duzuenean, zuen herrian bete egin ohi dira ikasteko lekuak (liburutegiak...), ikasle askorentzat arazo bilakatzeraino. Gainera, leku horien baldintzak oso eskasak dira, bai azpiegitura aldetik, baita Internet falgatetik edo sarea gaizki dabilelako ere.

Eginkizuna:

Herriko ikasle batzuen izenean, idatzi gutuna kultura-zinegotziari. Bertan, salatu ikasteko lekuei dagokienez zer-nolako gabeziak eta eragozpenak dituzuen; adierazi zer premia duzuen, betiere argudioak eta arrazoiak emanez; eta ohartarazi, zuen eskariak kontuan hartu ezik, zer-nolako neurriak hartuko dituzuen.

Lagungarriak:

- Etxean ikasteko leku eta baliabide aproposik ez.
- Sarritan ilara luzeak, liskarrak lekua hartzeko...
- Azpiegitura: espazioa, altzariak, argitasuna, berogailua, ordenagailu falta...
- Interneten eta oro har teknologien garrantzia ikasteko eta lanak egiteko.
- Sinadurak bildu, elkarretaratzeak egin, Arartekoarengana jo...



2. gaia: Turismo-tasei atea zabaltzen

Egoera:

Azken urteotan turismoak Euskal Herrian izan duen igoerak bisitariei zergak kobratzeari buruzko eztabaida piztu du. Zure hiri/herriko alkateak, esate baterako, bidaiariei gau bakoitzeko 0,5 zentimo eta bi euro bitarteko tasa kobratzea proposatu du. Tasa hori segurtasunerako, hondakinen bilketarako eta garbiketarako erabiliko lukete.

Eginkizuna:

Zure hiri/herriko alkatearen proposamena abiapuntu duzula, idatzi artikulua herri-aldizkarirako. Bertan, azaldu zer-nolako bilakaera izan duen turismoak zure hiri/herrian eta adierazi zer iritzi duzun ostatueta turismo-tasak ezartzeari buruz, betiere argudioak eta arrazoiak emanez.

Lagungarriak:

- Besteak beste, Frantzia, Italia eta Katalunian indarrean daude turismo-tasak.
- Tasaren zenbatekoa, ostatuaren mailaren arabera.
- Bildutako diruarekin turismoa sustatu, sektoreko enpresei lagundu, bisitarien herriari eragindako gastuak ordaindu...
- Turistak uxatzeko arriskua.
- Bisitari-kopuruari dagokionez, herri askotan arazorik ez.

